


'Amamaren danborra' dokumentala argitaratu du Azpeitiko Udalak

Egilea Erredakzioa | 18 urtaririla, 2021



Aurten 40 urte beteko dira Azpeitiko helduen danborradan emakumeak lehen aldiz danborra jotzen atera zirenetik. Efemeride bereziaren harira, *Amamaren danborra* dokumentala argitaratuko du udalak San Sebastian egunaren bezperan.

Herriko egun handietako bat izanik, bertako festarik parte hartzaileenetako bat ospatzen dute azpeitiarren San Sebastian egunean. 15.000 lagunetik gora biltzen ditu helduen danborradan, eta 1.500ek parte hartzen dute haurrek osatutakoan. Jende multzo horren erdia emakumeek osatzen dute, eta gauza arrunta da egun. Baina hori ez da beti horrela izan: 40 urte beteko dira aurten emakumeak lehen aldiz ateratzeko aukera izan zutenetik.

Hain zuzen, efemeride horren karietara aurkeztuko dute *Amamaren danborra* dokumentala. Azpeitiko Udalak sustatutako proiektua da, eta haren bidez, danborradaren historia jaso eta bertan parte hartu duten emakumei aitortza egin nahi izan diete. "Iazko danborrada antolatzeke lehen bileran bota genuen proposamena, eta danborradan parte hartzen duten elkarteetako ordezkariak ideia polita iruditu zitzaion; beraz, aurrera egitea erabaki genuen", esan azaldu dui Mikel Odriozola Azpeitiko Udaleko Festa zinegotziak. Paula Moto zinemagilearenera jo zuten orduan; honek proposamena onartu, eta 2020ko danborradan grabaketa lanetan arituko zen taldetxo osatu zuten.

Behin San Sebastian eguna pasatuta, ikus-entzunezkoari itxura ematen hasi ziren Moto eta lanaren gidolari Alaitz Olaizola azpeitiarra. Iaz hartutako irudiak, artxibo irudiak eta herritarren testigantzak nahastu dituzte ordubeteko iraupena duen dokumentalean. Emakumeak gehiengoak badira ere, azaldu dute gizonetakoak ere elkarriketatu dituztela.

Aurkezpen emanaldia

Aurrez aipatu bezala, bihar, San Sebastian bezperan, egingo dute aurkezpena; 19:00etatik aurrera, Soreazu antzokian. Edukiera mugak direla eta, jende gutxi izango du antzokira sartzeko aukera, baina Azpeitiko Udalaren eta Uztariaren webgunean bidez ekitaldia eta dokumentala zuzenean ikusi ahal izango dituzte hala nahi dutenek.

Udalak zabalduetakoaren arabera, dena den, pantaila handiaren zale direnek aukera gehiago izango dituzte hurrengo egunetan. Emanaldi guztiak doakoak izango dira, baina beharrezkoa izango da gonbidapena eskuratzeko, online bidez edo udalean bertan.



Estreinaldiak: Urtarrilak 29



THE FATHER: Aitaren, semearen eta Espiritu Santuaren izenean



Zineuskadiren koordinatzaile berria hautatzeko deialdia zabaldu dute

Esteka: <https://www.zinea.eus/2021/01/18/amamaren-danborra-dokumentala/>